

DEN STORE STILHED / THE GREAT SILENCE

Brocks: “Une mingarrietatik abiatzea gustatzen zait”

IRATXE MARTÍNEZ:

Katrine Brocks zuzendari daniarrak Den Store Stilhed (The Great Silence), bere lehen film luzea, aurkeztu zuen atzo Zinemaldian. Bezperan hunkitu egin zen soinu-proba egin zuenean. Hemen egotea egia bihurtutako ametsa da.

Zorionak Zinemaldian egoteagatik. Zer sentitzen da New Directors saria irabazteko lehian?

Aitortzen dut hau guztia irrealia iruditzen zaidala, egia bihurtutako amets bat bezala. Hiru urte eman ditugu filmean lanean, 2019tik, Danimarkako Zinema Eskola Nazionalan. Filmak egitea nekagarria izan daiteke, eta orain zoragarria eta surrealista da hemen egotea, aspaldian hemen egon nahi genuelako.

Nola eragin zion pandemiak prozesuari?

Zortea izan genuen, pandemian hasi ginelako idazten, konfinamenduan, eta hilabete horietan gidoia idatzi eta landu ahal izan genuelako. Atera gintuztenean, berehala filmatzeko setera joan ginen eta grabatzen hasi ginen. Noski, musukoarekin eta testekin lan egin behar izan genuen, eta horrek apur bat zaildu zuen filma zuzentzea; baina zortea izan genuen, ez baitzgun beste ezertan eragin.

Sari bat irabazi zenuen *In The Blink Of An Eye* film laburragatik. Zer sopusatu zuen sari horrek?

Sari horrek dena aldatu zuen. Hori irabazteak konfiantza eman zidan, film luzerako jauzia egiteko gaitasuna nuela sinestarazi zidan, eta horretan hasi nintzen. Finantziarioa jasotzeko



ULISES PROUST

ateak ere ireki zizkidan. Horri esker existitzen da orain pelikula hau. Pertsonalki, oso garrantzitsua izan zen niretzat filmak errekonozimendua lortzea, istorio hori benetan maite dudalako eta jende askok bihotza eta arima jarri dituelako bere proiektuan.

Zuzendari gisa lan egiteko modua inspiratu zaituen erreferente zinematografikorik ba al dago?

Nire heroi zinematografikoetako bat Lynne Ramsay da, zuzendari eskoziarra. Zine eskolan sartu aurretik Ramsay ezagutzeko zortea izan nuen. Berak

zuzendu ditu *We Need To Talk About Kevin* eta *You Were Never Really Here* filmak, bi film bikain, eta uste dut miresten dudala bere pertsonaietan interes handia duelako, baina, batez ere, argazkilaria delako, eta zentzu bisual indartsua du eta bere planoetan nabari da. Isitasunaren ahalmenearen kontzientzia handia ere badu, eta bere soinu-diseinatzailea, Davies, pelikularako aholkuak eman zizkigun eta hori egia bihurtutako ametsa izan zen.

Filma erruari buruzko hausnarketa handia da. Zergatik zen garrantzitsua zuretzat?

Hori galdera ona da. Komunitate kristau batean hazi nintzen eta nire gurasoek kanpamendu bibliko bat zuten. Hamalau urte bete arte sinesten nuen, baina gero Fedearen krisi bat bizitzen hasi nintzen eta geroztik identitate espiritualaren krisian aurkitu naiz. Asko hausnartu dut nola eragin didan horrela hazteak; Jesus jarraitu beharreko erdutzat edukitzeak nire burua gehiegi epaitzera eta exijitzera eramanez, pertsona ona ez naizela pentsatzera. Film hau horren esplorazio bat da. Pelikula honen alderdi asko pertsonalak dira. Une mingarrietatik abiatzea gustatzen zait, hausnartzeko eta ikusleei itzultzeko. Pentsatu nahi nuke unibertsala dela, denon arteko elkarriketa has dezakeena.

Filmean informazioa nahita dosifikatzen da. Nolako izan da gidoian hori kudeatzea?

Hori izan da filma egiteko erronka handiena, galdera ona da. Buruko min asko eman dizkit gidoia idazterakoan eta filma muntatzerakoan. Guretzat oso garrantzitsua zen informazio guztia hasieratik ez ematea, baina mis-

teriozko filma edo suspensea ere ez izatea. Kontua ez da nor izan den edo zer egin duen bakoitzak, baizik eta pertsonaiek nola egiten dieten aurre beren bizitzako gertakari horiei, eta nola aurkitzen dioten zentzua beren bizitzari gertatutakoaren ondoren.

Komentuko bizitza filmaren zati garrantzitsu bat da. Nola lantzen dituzu giroa eta pertsonaiak?

Filma komentu katoliko batean kokatzeko ideia nire haurtzaroko orotzapen batetik sortu zen. Familiaren lagun bat bere botoak hartu eta moja egin zen. Nik txikitik ikusi nuen zere monia hori, eta geroztik neure buruari galdetu diot zerk eragiten dion pertsona bati bizimodu hori aukeratzera, ohikoa ez bezalakoa baita. Bizitzari zentzua ematen dioten alderdi askori agur esan behar diezu, familiari adibidez. Honek biziki liluratzen ninduen. Zortea izan genuen, itxierako komentu batek aukera eman zigulako han egun batzuk emateko, haien bizitza, errutinak ikusteko, haiengandik ikasteko. Oso probetxugarria izan zen. Mojak filma ikustera doaz eta euren iritzia jakin nahi dut.

Filmak karga emozional handiko eszena asko ditu, nola lantzen zenituen une horiek aktoreekin?

Aktore nagusia, Kristine Kujath Thorp, nire lagun handia da eta beste proiektu batzuetan lan egin dut berarekin. Urte hauetan, asko sakontzeko aukera ematen digun lan-metodo bat garatu dugu. Laster hasi ginen pertsonaia garatzen, inprobisazioak egiten eta, adibidez, batzuetan bidaltzen zizkidan bideodiarioak ikusten nituen, eta xehetasun horietako asko filmean inplementatu genituen azkenean.

Filmean agertzen ez diren pertsonaien uneak ere landu genituen, garrantzitsuak direlako pertsonaia erakitzeko. Film honetan istorio izugarria dago atzean, beraz, garrantzitsua zen ulertzea. Espero dut Zinemaldiko ikusleek ere pelikulan sakontzea eta elkarriketa bat hastea.

FOUDRE / THUNDER

Quando el actor ha hecho más filmes que el director

I. M.

La sección New Directors recoge primeros o segundos largometrajes. Pero, ¿qué pasa cuando el actor principal tiene más películas a sus espaldas que el director?

En la película *Foudre*, que se estrenó ayer en el K2 y que recibió la ovación del público del Zinemaldia, se da esta sinergia. Lilith Grasmug es la actriz protagonista del primer largometraje de Carmen Jaquier. Sin embargo, la actriz tiene una gran carrera de interpretación a sus espaldas. Y esa perspectiva resulta del todo interesante.

Grasmug protagonizó una película que ya estuvo en el Festival en 2018,

Sophia Antipolis, de Virgil Vernier. El film se presentó en la sección Zabaltegi-Tabakalera. Ella no pudo estar presencialmente, por lo que venir a San Sebastián era una espina que tenía clavada. Lo que más la inquietaba previo al estreno de ayer por la tarde era el estar tan cerca del público en el visionado. Cuando está grabando o promocionando la película consigue disociarse y abstraerse del papel, pero la presentación en el Kursaal suponía una experiencia inmersiva que no sabía cómo iba a afrontar.

Para ella, aceptar un papel con un director novel es algo arriesgado, pero admite que conectó al instante con Jaquier y la historia, lo que le ayudó a

construir el personaje y afrontar uno de sus obstáculos interpretativos: Grasmug siente que la cámara le roba la energía y le transmite soledad: “Todos te miran; te miran la ropa, el maquillaje, la luz. Te miran, pero llega un momento en el que no te ven”.

Para Lilith, este proyecto ha sido una gran oportunidad: “Recuerdo que después de hacer la audición estaba de paseo por París con mis amigos y soñábamos con que me dieran el papel. Estaba muy ilusionada. Conocía el trabajo de Carmen, me encantaban sus cortos y su creatividad, cómo maneja de manera precisa las lentes. Esa destreza se nota en la película y espero que el público pueda apreciarla”.



Lilith Grasmug se ha quitado la espina de venir a San Sebastián

PABLO GOMEZ